

EGILE ESKUBIDEEN  
IKASGELAREN  
EGILE-ESKUBIDEEI  
**BURUZKO**  
GIDALIBURUA



EGILE ESKUBIDEEN IKASGELA



© Kopioisto ry 2017

Testua: Kopioisto ry. Espainiarako bertsioan, CEDROk egokitu ditu materialak.

Irudiak eta diseinu grafikoa: Tarja Petrell / J&Co Digital Oy.

# EDUKIA

<b>ESKUBIDE ERREPROGRAFIKOEN ESPAINIAKO ZENTROA (CEDRO)</b>	<b>5</b>	<b>OBRAK ERABILTZEA</b>	<b>22</b>
<b>ONGI ETORRI EGILE ESKUBIDEEN IKASGELARA!</b>	<b>6</b>	<i>Material hauek erabil daitezke:</i>	23
<b>EGILE-ESKUBIDEEI BURUZKO ONINARRIZKO KONTZEPTUAK</b>	<b>8</b>	<b>Aipiak</b>	<b>23</b>
<b>Zer dira egile-eskubideak?</b>	<b>8</b>	<i>AIPUAK. LABURPENA:</i>	24
<b>Egile-eskubideen babes</b>	<b>8</b>	<b>Ezagutzak edo ideiak erabiltzea</b>	<b>24</b>
<b>Egile-eskubideak aitortzea</b>	<b>9</b>	<b>Erabilera pribatua</b>	<b>25</b>
<i>Copyrightaren sinboloa, ©</i>	10		
<i>Lankidetzan egindako obra</i>	10		
<i>Obra kolektiboa</i>	11		
<b>Originaltasun-atalasea</b>	<b>11</b>		
<b>ZER DIRA EGILE-ESKUBIDEAK EGILEARENZAT?</b>	<b>12</b>	<b>IRAKASKUNTZAN OBRAK ERABILTZEA</b>	<b>26</b>
<b>Ondare-eskubideak eta eskubide moralak</b>	<b>13</b>	<b>Irakaskuntzan obrak erabiltzea</b>	<b>26</b>
<b>Egokitzapenak eta itzulpenak</b>	<b>14</b>	<b>Irakaskuntza arautuko ikastetxeentzako CEDROren lizentzia</b>	<b>28</b>
<b>Egile-eskubideak lagatzea</b>	<b>14</b>	<i>Ikastetxeentzako egile-eskubideen lizentzia</i>	29
<b>Egile-eskubideen babesaren iraunaldia</b>	<b>15</b>	<i>Irakaskuntzan telebista-programak, bideoak eta filmak erabiltzea</i>	31
<b>ESKUBIDE HURKOAK</b>	<b>15</b>	<i>Telebista-programak</i>	31
<b>Argazkien babes</b>	<b>16</b>	<i>Filmak</i>	31
<b>EGILE-ESKUBIDEAK URRATZEA</b>	<b>17</b>	<i>Onlineko bideoak</i>	32
<b>Jabetza intelektualaren kontrako delitua</b>	<b>18</b>	<b>Musika irakaskuntzan erabiltzea</b>	<b>32</b>
<b>Jabetza intelektualaren kontrako delitu astundua</b>	<b>19</b>	<i>Musika erreproduzitzea</i>	32
<b>ARGAZKIAK EGITEA ETA ARGITARATZEA</b>	<b>19</b>	<i>Musika grabatzea</i>	33
<b>Argazkia egitea</b>	<b>19</b>	<b>IRAKASLEAREN EGILE-ESKUBIDEAK</b>	<b>36</b>
<i>Artelanen argazkiak egitea</i>	20	<b>DERECHOS DE AUTOR DEL PROFESOR SOBRE SU PROPIO MATERIAL</b>	<b>37</b>
<b>Argazkiak argitaratzea</b>	<b>21</b>	<b>Irakasle batek egindako materialaren gainean ikastetxeak dituen eskubideak</b>	<b>37</b>
<i>Intimitatea, ohorea eta irudia babestea</i>	21	<b>JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK KUDEATZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK</b>	<b>39</b>
		<b>EGILE-ESKUBIDEEI BURUZKO ARGIBIDE GEHIAGOTARAKO</b>	<b>41</b>





**Eskubide Erreprografikoen Espainia-ko Zentroa (CEDRO) ([www.cedro.org](http://www.cedro.org)) edozein bide eta euskarritan argitaratutako liburu, aldizkari, egunkari eta partituren egile eta argitaratzaileen elkartea da, irabazi-asmorik gabekoa.**

Argitalpen horien bigarren mailako erabileraren (erreproduktzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa) ondoriozko jabetza intelektualeko eskubideak modu kolektiboan defendatu eta kudeatzen ditu.

Kultura Ministerioak eman zion jarduera horretarako baimena, 1988an.

CEDROren xedea da liburuen eta aldizkako argitalpenen egileen interes legitimoak ordezkatzea eta defendatzea eta, horretarako, haien obren legezko erabilera erraztea eta sustatzea.

# ONGI ETORRI EGILE ESKUBIDEEN IKASGELARA!

Helburu hau du Egile Eskubideen Ikasgelako material didaktikoak: irakasleak eta ikasleak lan sortzailerantz inspiratzea eta bul-tzatzea da, egile-eskubideak errespetatuta.

Gida honek egile-eskubideei eta ikastetxeentzako egile-eskubi-deen lizentziei buruzko oinarritzko informazioa ematen du. Kopi-osto ryk ekoitzi du materiala; egile-eskubideak kudeatzen dituen erakunde bat da. Zuzendaritza-taldean Finlandiako Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak, Hezkuntza eta Kultura Ministerioak eta



Hezkuntza Sindikatuak (OAJ) parte hartu duten proiektu batean ekoitzi da materiala, eta CEDROk egokitu du Espainiarako. Pedagogiako eta egile-eskubideetako adituek egin dute materiala.

Bi webgune hauetan informazio gehiago dago autore-eskubideei eta egile-eskubideen lizentziei buruz: [auladerechodeautor.org](http://auladerechodeautor.org) eta [cedro.org](http://cedro.org)



# EGILE-ESKUBIDEEI BURUZKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK

## © Zer dira egile-eskubideak?

Egile-eskubideek lan sortzailea babesten dute. Egilerik ezean, ez da sortzen filmik, musikarik, libururik edo komikirik. Egile-eskubideek egileari erabakitzeo eskubidea ematen diote bere lanari buruz, hau da, bere lan sortzailearen emaitzari buruz. Egileek beren obrak saltzetik eta haiek erabiltzeko eskubideetatik lortzen dituzte beren diru-sarrerak. Egile-eskubideak ezinbestekoak dira lan sortzailetik bizi ahal izateko eta obra berriak sortzeko.

## © Egile-eskubideen babesa

Egile-eskubideek ez dituzte ideiak babesten, ideien adierazpidea baizik: lan sortzaile independente eta original baten emaitza.

Obra izan daiteke literarioa, zientifikoa edo artistikoa. Besteak beste, honako hauek hartzen dira obratzat: liburuak, argitalpenetako artikulua, musika-konposizioak, partiturak, marrazkiak, koadroak, argazki-obrak, antzezlanak, filmak, telebista-programak, programa informatikoak, bideo-jokoak, datu-baseak, mapak, eraikinak eta arte ederretako obrak.

Egile-eskubideek ez dituzte babesten obra batean dauden informazio hutsa (datak, datuak, gertaerak...), ideiak, printzipioak edo metodoak, baizik eta ideien, informazioen eta abarren adierazpide originala. Adibidez, beste norbaiten artelan bat inspirazio-iturri gisa erabil daiteke koadro bat margotzeko, edo beste baten ideia berean oinarritzen den liburu bat idatz daiteke.

Hala ere, ezin da kopiatu beste norbaiten obra bat. Testu propioak zure hitzekin idatzi behar dituzu beti, eta informazio-iturriak aipatu behar dira jardunbide egokiei jarraituta.



## © Egile-eskubideak aitortzea

Egile eskubideak egile orori aitortzen zaizkio obra sortze hutsagatik. Ez da inolako baldintza formalik eskatzen eskubide horiek babesteko. Ez da erregistrorik eskatzen, ezta © sinboloa erabiltzea ere, obra bat babestuta egon dadin.

Obra sortu duen pertsonari aitortzen zaizkio egile-eskubideak. Egilea beti da pertsona fisiko bat. Ez du axola zer adin duen egileak. Ikasle baten lana ere babestuta egon daiteke, originala bada. Adibidez, marrazkiak eta idazlanak babestuta daude, haurraren adina eta maila edozein direla ere. Ikaslearen baime-na behar da berak egindako lan bat erabiltzeko, hala nola marrazkiak edo idatziak eskolako argitalpen batean edo webgune batean argitaratzeko. Adingabeen kasuan, legezko tutoreen adostasuna ere eskatu behar da. Irakasleak ere egile-eskubideak sor ditzake, egiten duen material didaktiko originala dela eta.



*Jabetza Intelektualari buruzko Legea, 10. artikulua.*

## Copyrightaren sinboloa, ©



© marka nazioarteko sinbolo bat da: egile-eskubideek babesten duten obra batean egilearen edo egile-eskubideen titularraren izenaren aurrean erabiltzen da. Copyright sinboloa erabiltzean, obra baten egile-eskubideen jabea nor den adieraz daiteke. Hala ere, ez da eskatzen © sinboloa erabiltzea egile-eskubideen babesa jasotzeko. Copyright edo © sinbolorik ez egoteak ere ez du kentzen egile-eskubideen babesa. Obra batek sinbolo hori ez izateak ez du esan nahi babestuta ez dagoenik. Obra bat sortzean sortzen dira egile-eskubideak; une horretan hasten da babesa, eta horretarako ez da behar, ez erregistrorik, ez bestelako izapiderik.

Ez dago ezarrita © sinboloa erabiltzeko forma berezirik. Honela erabiltzea da ohikoena: Copyright ©, autorearen edo eskubideen titularraren izena eta lehenengoz argitaratu den urtea. Halaber, copyright hitza jarri gabe utz daiteke. Adibidez, © CEDRO 2017.

## Lankidetzan egindako obra

Bi pertsonak edo gehiagok elkarrekin obra bat sortzen badute, obra hori lankidetzan sortzen da. Parte hartu duten egile guztiei dagozkie egile-eskubideak. Lankidetzan egindako obra bat erabiltzeko, egilekide guztien baimena behar da.

*Jabetza Intelektualari buruzko Legea, 7. artikulua.*

## Obra kolektiboa

Hau da obra kolektiboa: pertsona natural edo juridiko batek (adibidez, argitaratzaile edo argitaletxe batek) bere ekimenez eta koordinazio-lanez sortzen eta bere izenez argitaratu eta jendarteratzen duen sortze-lan bakar eta autonomoa, egile batek baino gehiagok hartarako berariaz egindako ekarpen pertsonalak batuz osatu dena, egileetariko ezeini obra osoaren gaineko eskubiderik berari bakarrik esleitu ezin zaioneko. Kontraktorik hitzartu ezean, obra kolektiboa bere izenean argitaratu eta jendarteratzen duen pertsonari dagozkio haren gaineko eskubideak. Adibidez, obra kolektibo baten fotokopiak egiteko edo Interneten partekatzeko, argitaratzailearen baimena beharko dut. Adibidez, hiztegi bat edo egunkari bat obra kolektiboak izan daitezke.

*Jabetza Intelektualari buruzko Legea, 8. artikulua.*

## © Originaltasun-atalasea

Hala ere, sortzen dudan guztia ez dago babestuta. Obra bat babestuta egon dadin, originaltasuna behar da, lan sortzailea. Originala izango da egilearen nortasuna eta aztarna islatzen duen obra, erabaki aske eta sortzaileen emaitza. Kasuz kasu baloratzen da originaltasuna. Azken buruan, epaimahai batek egiten du balorazioa. Ez da originala, baldin eta emaitza erabaki aske eta sortzaileen ondorioa izan beharrean arau teknikoek ezarri badute. Ez du axola zer kalitate duen obrak: kualitativoki edo artistikoki eskasak diren obrak ere babestuta daude. Ideiak ez dira babesten; haiek islatu, garatu eta adierazi diren era originala baino ez da babesten.

## ZER DIRA EGILE-ESKUBIDEAK EGILE-ARENTZAT?


Egile-eskubideek *egileari eskubidea* ematen diote erabaki dezan nola eta non erabiltzen den sortu duen obra. Egile-eskubideek babestutako obra bat erabili nahi izanez gero, oro har, egilearen edo egile-eskubideen titularraren baimena behar da.

Lan sortzaileen egile gehienek (artistek) egile-eskubideen diru-sarreretatik jasotzen dute beren soldata. Beren obrak eta haiek erabiltzeko eskubideak saltzen dituzte. Adibidez, idazle batek liburu-argitaletxe bati saltzen dizkio argitalpen- eta itzulpen-eskubideak, antzerkigile bati antzerkira egokitzeko eskubideak, eta zinema-produktore bati zinema-eskubideak. Ilustratzaile batek, berriz, argitaletxe bati saltzen dizkio bere marrazkiak liburu baten ilustrazio gisa argitaratzeko eskubideak, telebista-produktore bati marrazkiak animazio bihurtzeko eskubideak, eta inprimategi bati produktu batzuetan marrazki bizidunetako pertsonaia bat erabiltzeko eskubideak.

Alde bakoitzak konpentsazio bat ordaintzen dio artistari, obra erabiltzen duen moduagatik. Artista askok ez dute hileko soldatarik, eta ordainsari horietan datza haien bizibidea.

Hilabeteak edo urteak behar izaten dira liburu bat idazteko, komiki bat marrazteko, konposizio musikal bat sortzeko edo pelikula bat filmatzeko. Oro har, artistek ez dute soldata erregularrik jasotzen lan sortzaileagatik, diseinuagatik edo entseguengatik. Haien sarrerak emanaldietatik, aleen salmentatik edo obra baten erabileratik baino ez datoz. Egile-eskubideek aukera ematen dute lan sortzailetik bizitzeko, eta obra berriak sortzeko, hala nola liburuak, komikiak, filmak eta musika.

## © Ondare-eskubideak eta eskubide moralak



Ondare-eskubideak eta eskubide moralek sartzen dira egile-eskubideen barruan. Honako hauek dira ondare-eskubide eskusiboak: erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa, publikoaren eskura jartzea eta eraldaketa. Eskubide eskusiboek esan nahi dute egileak eskubidea duela erabakitzeko bere obraren kopia egiten diren, banatzen diren edo publikoaren eskura jartzen diren, adibidez, haiek salduz, mailegatuz edo alokatuz edo Internetera igoz. Egileak erabaki dezake bere obra aldatu, itzuli edo beste literatura edo arte mota batez aurkez daitekeen, edo beste metodo bat erabiliz. Adibidez, liburu bat itzultzeko, antzerkira egokitzeko edo horretan oinarritutako film bat filmatzeko, idazlearen baimena behar da; era berean, konposizio baten moldaketak egiteko, konpositorearen baimena behar da.

Egilearen eskubide moralek esan nahi dute egilea errespetatu behar dela. Obra bat erabiltzean, egilearen izena aipatu behar da, eta obra ez da modu iraingarrian aldatu behar. Halaber, obra ezin da egilearentzat iraingarria den testuinguru batean jarri publikoaren eskura.

*Jabetza Intelektualari buruzko Legea, 14. artikulua.*

## © Egokitzapenak eta itzulpenak

Obra baten aldaketa, itzulpena eta eraldaketa egilearen esku-bide eksklusiboen eremukoak dira. Jatorrizko egilearen baimena behar da obra bat aldatzeko, hala nola irudi bat editatzeko, liburu bat itzultzeko edo konposizio bati moldaketak egiteko.

Obra bat eraldatzean sortzen den obrari obra eratorria esaten zaio, eta haren egile-eskubideak egokitzapenaren egilearenak dira (itzultzailearenak, adibidez), egokitzapena behar bezain originala bada.

Obra originalaren babes-epea amaitu bada, ez da baimenik behar hura aldatzeko.

Beste norbaiten obraren ideia bat beste obra original independente bat sortzeko erabil daiteke. Obra eratorri baten egileak ere baditu eskubideak; adibidez, jatorrizko obra baten itzultzaileak.

*Jabetza Intelektualari buruzko Legea, 11. artikulua.*

## © Egile-eskubideak lagatzea

Egile batek beste norbaiti laga diezazkioke egile-eskubideak, osorik edo partez, hala nola argitaratzaile, produktore edo enpresaburu bati. Lagapen-hartzailea eskubideen titular bihurtzen da. Obraren ale baten (liburu edo koadro bat, adibidez) jabe izateak

ez du esan nahi obraren egile-eskubideen jabe izatea.

Idatziz formalizatu behar da lagapena.

Ordainketa hutseko eskubideak, hala nola eskubideen titularrek beren obren kopia pribatuagatik edo liburutegi jakin batzuetan beren obrak mailegatzeagatik jasotzen duten konpentsazioa, ez dira lagatzen. Eskubide moralak ezin dira laga. Jatorrizko egileak gordetzen ditu berekin.

*Jabetza Intelektualari buruzko Legea, 14. artikulua.*

## © Egile-eskubideen babesaren iraunaldia

Egile-eskubideak egilearen bizitza osoan eta egilea hil eta beste 70 urtez daude indarrean (hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera). Lankidetzako obren kasuan, babes-epeak egilekideen bizitza osoan eta bizirik zegoen azken egilekidea hil edo haren heriotza deklaratu eta beste hirurogeita hamar urtez iraungo du.

Babes-epea amaitu ondoren, obra libreki erabil daiteke.

*Jabetza Intelektualari buruzko Legea, 26. eta 27. artikulua.*

## ESKUBIDE HURKOAK

Jabetza Intelektualari buruzko Legeak egile-eskubideen antzekoak diren eskubide batzuk ere babesten ditu. Horiei eskubide hurkoak deitzen zaie. Eskubide hurkoek honako hauek babesten dituzte, besteak beste: argazki hutsen egileak, fonogramen edo ikus-entzunezko grabazioen produktoreak, zenbait argitalpen-produkzioen editoreak eta artista interpretatzaile edo exekutatzaileak. Eskubideen titular horien obrak edo prestazioak kopiatu eta erabiltzeko, haien baimena ere behar izan daiteke.

Eskubide hurkoen babesa jasotzeko, ez da beti eskatzen originaltasunaren baldintza betetzea. Adibidez, argazki-obra original

bat egile-eskubideek babestuko dute, baina nahikoa originaltasun-mailarik ez duen argazki soil batek, berriz, eskubide hurko mugatuagoa izango du. Egile-eskubideen babesaren aldean, desberdintasunik nabarmenena babes-epearen iraupena da, epe hori alda baitaiteke.

Adibidez, argazki soil bat egin zenetik hogeita bost urtez babesten da (hurrengo urteko urtarrilaren 1etik). Argazki-obra originalak, berriz, egilearen bizitza osoan eta egilea hil eta beste 70 urtez (hurrengo urteko urtarrilaren 1etik) daude babestuta. Datu-baseen fabrikatzaileek eskubide sui generis bat izango dute 15 urtez, fabrikazio-prozesua amaitu eta hurrengo urteko urtarrilaren 1etik. Datu-base originalen egileek, berriz, beren bizitza osoan eta hil eta beste 70 urtez (hurrengo urteko urtarrilaren 1etik) izango dituzte egile-eskubideak. Fonografia-produktore baten eskubideen babes-epea berrogeita hamar urtekoa da, grabazioa egin eta gero. Hala ere, denbora-tarte horretan fonograma legezko bide batez argitaratzen bada, legezko lehen argitalpena egin den egunetik hirurogeita hamar urtera amaituko dira eskubideak. Aipatutako denbora-tartean legezko argitalpenik egiten ez bada, baina fonograma legezko bide batez komunikatzen bazaio publikoari, legezko lehen komunikazio publikoa egin den egunetik hirurogeita hamar urtera amaituko dira eskubideak. Grabazioa, argitalpena edo komunikazio publikoa egin eta hurrengo urteko urtarrilaren 1etik zenbatuko dira epe guztiak.

*Jabetza Intelektualari buruzko Legea, 119. artikulua.*

## © Argazkien babesa

Argazki-obra egile-eskubideek babestuta daude. Originaltasun-atalasea gainditzen bada, argazkia obra gisa babestuta egongo da. Beste argazki batzuk argazki huts gisa babestuta daude, originaltasun-atalasea gainditzen ez badute. Kasuz kasu balora-



tzen da originaltasun-maila gainditzen den. Originaltasun-atalasea gainditzeko, argazkilariaren sormen-hautapenek eragina dute, besteak beste: konposizioak, muntaiak, enkoadraketak, ikus-angeluak eta irudiaren argiztapenak. Une historiko soil batek edo irudi baten sinkronizazio egoki batek ez dute argazki-obra bihurtzen. Irudia argitaratu den tokiak ere ez du zehazten argazki-obra gisa ala argazki huts gisa babestuta dagoen argazkia. Adibidez, aldizkari batean argitaratutako albisteetako irudiak ere argazki obrak izan daitezke.

Egile-eskubideek argazki-obra gisa babesten badute argazkia, argazkilaria hil eta beste 70 urtez (hil den urtearen amaieratik) daude babestuta. Argazkia argazki huts gisa babestuta badago, ordea, babes-epea 25 urtekoa da argazkia egin zen urtetik aurrera.

*Jabetza Intelektualari buruzko Legea, 128. artikulua.*


## EGILE-ESKUBIDEAK URRATZEA

Egile-eskubideek babestutako obra bat baimenik gabe erabiltzea egile-eskubideen urraketa da. Egile-eskubideak urratzeak kalte-galerengatiko zehapen penalak eta legalak ekar ditzake.

Baimenik gabe erabiliz gero, erabiltzaileak kalte-ordaina ordaintzera kondena jaso dezake. Betebehar hori ez dago erabiltzailea baimenik gabeko erabileraren jakitun izatearen mende. Beraz, baliteke fede oneko erabiltzaile batek ere konpentsazio bat ordaindu behar izatea, baldin eta ez bazuen erabiltzeko behar zen baimena. Urraturiko eskubidearen titularrari kalte-galerengatik zor zaion kalte-ordainean, jasandako galeraren balioa ez ezik, eskubidea urratu zaiolako lortu ez duen irabaziarena ere sartuko da.

Kompentsazioaz gain, erabiltzaileari eska dakiokete egileari kal-

te-galeren ordaina ordain diezaiola beste galera, sufrimendu eta



eragozpen batzuegatik, hala nola kalte moralengatik. Kalte-galerengatik kalte-ordainaren zenbatekoa banan-banan baloratuko da kasu bakoitzean. Osoko erreparazioaren printzipioa da premisa, hau da, egileari kalte-ordaina eman behar zaio eragindako kalte guztiengatik. Arau-hausleak baimena edo

lizentzia eskatu izan balu jasoko zukeen ordainsaria eska dezake eskubideen titularrak kalte-ordain gisa. Kalte-galerengatik konpentsazioaz eta kalte-ordainaz gain, egile-eskubideak urratzeak erantzukizun penala ere ekar dezake, hau da, zigor bat. Espainian 14 urtetik beherakoek ondare-erantzukizunik ez duten arren, bali-teke gurasoek seme-alabek eragindako kalteak ordaindu behar izatea. Egile-eskubideen urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu gisa zigor daiteke.

*Zigor Kodearen 270 eta 271 artikulua.*

## © Jabetza intelektualaren kontrako delitua

Jabetza intelektualaren aurkako delitua egin dezake norbaitek, baldin eta etekin ekonomikoa lortzeko asmoz baimenik gabe babestutako obra bat kopiatu, plagiatu, banatu, publikoki jakinarazi edo beste edozein modutan, osorik edo zati batean, ekonomikoki ustiatzen badu. Piratatuak produktuak inportatzea edo esportatzea ere jabetza intelektualaren aurkako delitua izan daiteke.

Delitu horiek espetxe-zigorrek eta/edo isunak ekar ditzakete.

*Zigor Kodearen 270. artikulua.*

## © Jabetza intelektualaren kontrako delitu astundua

Jabetza intelektualaren aurkako delituak astunagoak dira inguruabar jakin batzuk gertatzen badira.

Astunagoak izango dira lortutako etekinak garrantzi ekonomiko handia badu, egitateak bereziki astunak badira, erruduna jabetza intelektualeko eskubideak urratzen dituzten jarduerak egitea helburu duen erakunde edo elkarte bateko kidea bada, hura iragankorra bada ere, edo 18 urtetik beherakoak erabiltzen badira delitu horiek egiteko.

Horrelako kasuetan, bi urtetik sei urte arteko espetxe-zigorra ezarri ahalko da, hemezortzi hilabetetik hogeita hamasei hilabete arteko isuna eta egindako delituari loturik dagoen lanbidean aritzeko bi urtetik bost urte arteko desgaitasun berezia.

*Zigor Kodearen 271. artikulua.*

## ARGAZKIAK EGITEA ETA ARGITARATZEA

Argazkiak egin eta argitaratzean, autore-eskubideekin, intimitatearekin, ohorearekin eta norberaren irudiarekin lotutako arauak eta jardunbide egokiak errespetatu behar dira.

### © Argazkia egitea

Oro har, publikoari irekita dagoen leku batean, beti dago baimenduta argazkiak egitea, baldin eta ez bada debekatu arrazoi-  
ren batengatik; adibidez, segurtasunagatik. Publikoari irekita dauden tokiak: kaleak, parkeak, hiribideak... Espazio pribatuetan (adibidez, norbaiten etxean), ez da zilegi argazkiak baimenik

gabe ateratzea. Publikoari irekita dauden leku guztietan ez dago baimenduta argazkiak egitea. Leku publikoetan, baliteke pertsoneri ere argazkiak egitea. Pertsonak uko egin diezaiokete haiei argazkiak egiteari.

Eraikinei libreki egin dakizkieke argazkiak, bide publikoan modu iraunkorrean dauden obrak argazki, bideo edo marrazki bidez erreproduzitu baitaitezke. Hala ere, eraikinaren jabeak edo errentariak eraikinaren barruko argazkiak egitea debekatu dezake, adibidez, bere pribatutasuna babesteko. Museo baten jabeak edo errentariak, adibidez, museoan argazkiak egitea debekatu dezake.

Leku publiko batean argazkiak egitea baimenduta badago ere, ez da eragozpenik sortu behar. Oro har, mugikorrek edo bestelako gailuak irakasleak horretarako baimena ematen duenean baino ez dira erabiltzen ikasgelan.

### **Pertsoneri argazkiak egitea**

Pertsona bati argazki bat egiteko normalean haren adostasuna behar izaten da. Argazki hori argitaratzeko ere, adibidez, sare sozialetan edo Interneten, haren baimena behar duzu. Lege askok mugatzen dute irudiak argitaratzea. Adibidez, argitalpenak ez du inoren ohorea edo intimitatea urratu behar, ez eta Ohore-rako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilaria buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa ere.

### **Artelanen argazkiak egitea**

Artelan bati argazkiak egitea (adibidez, postal baterako, liburuxka bateko ilustrazio baterako, liburu bateko portada baterako edo webgune batera igotzeko) artelan bat erreproduzitzea da, eta, horretarako, artelanaren egilearen baimena behar da. Bide publiko batean (adibidez, parke batean, kale batean edo bestelako bide publiko batean) modu iraunkorrean dauden artelanei

(estatuak, pinturak, etab.), libreki egin dakizkieke argazkiak. Zuk egindako argazki horiek Interneten banatu edo partekatu ahal izango dira. Gaur egungo gertaerei buruzko informazioa ematean ikus edo entzun daitekeen edozein lan.

Zilegi da gaurkotasuneko gertaerei buruzko informazioen kariaz ikusgarri edo entzungarri datekeen zeinahi obra (adibidez, koadro bat, enkante bat edo erakusketa bat direla eta) erreproduzitzea, banatzea eta publikoari komunikatzea, baina informatzeko xede horrek justifikatzen duen neurrian soilik.

*Jabetza Intelektualari buruzko Legea, 35. artikulua.*

## © Argazkiak argitaratzea

Gogoratu behar da ez dela gauza bera argazki bat egitea eta hura argitaratzea.

Irudi bat argitaratzeko, oro har, komeni da irudiko pertsonari edo pertsoneri baimena eskatzea, bertan identifika badaitezke. Irudi bat argitaratzean, ez da inoren ohorea edo intimitatea urratu behar. Adingabeen kasuan, haien irudia argitaratzeko (adibidez, eskolako argitalpenetan, webguneetan edo sare sozialetan), tutoreen baimena ere behar da.

## Intimitatea, ohorea eta irudia babestea

Pertsona ororen intimitatea, ohorea eta irudia babesten ditu legeak. Eskubide horiek urra daitezke, kaltea, oinazea edo mespretxua eragin diezaiokeen informazio faltua zabaltzen edo iradokitzen bada norbaiti buruz. Irainak dira beste pertsona baten duintasunari kalte egiten dioten adierazpenak, haren ospeari kalte egiten diotenak edo haren autoestimuari erasotzen diotenak; astunak izan daitezke komunikabideetan zabaltzen bada (egunkari batean edo telebistan, esaterako), edo pertsona bati baino gehiagori jakinarazten bazaie, adibidez, Interneten bidez.


Irainak delitutzat har daitezke. Publizitatearekin egindako irain larriak sei hilabetetik hamalau hilabete arteko isunarekin zigortuko dira, eta, bestela, hiru hilabetetik zazpi hilabete arteko isunarekin. Gainera, baliteke kalte-galerengatiko, sufrimenduen-gatiko eta bestelako galerengatiko kalte-ordaina ordaindu behar izatea, bai eta beste aldearen prozesu-kostuak ere.

*Zigor Kodea, 208. eta 209. artikulua.*

## OBRAK ERABILTZEA

Egile-eskubideek egileari eskubidea ematen diote bere obra nola erabili erabakitzeko. Baimena lortzeko, egileari, eskubideen beste titular bati edo jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzen dituen erakunde bati eska dakieke. Egoera batzuetan, Jabetza Intelektualari buruzko Legeari jarraituz, muga edo salbuespen baten bidez baimentzen da erabilera, eta, beraz, Legeak ahalbidetzen dizu erabilera hori. Murrizketari jarraituz, obra egilearen adostasunik gabe erabil daiteke.

Obra bat erabiltzen denean, beti aipatu behar dira egilea eta iturria, jardunbide egokiak errespetatuta. Egile Eskubideen Ikasgelako materialean, badaude iturriak aipatzeko ereduak.





## MATERIAL HAUEK ERABIL DAITEZKE:

1. Originaltasun-atalasea gainditzen ez duen materiala
2. Ideiak, informazioa, metodoak
3. Babes-epea iraungia duten obrak
4. Aipuak, Jabetza Intelektualari buruzko Legean aurreikusitako aipu-muga baliatuta
5. Ikastetxerako baimenak lortu diren obrak
6. Creative Commons lizentzia edo lizentzia ireki baliokide bat duen materiala
7. Beste material batzuk, eskubideen titularrari baimena eskatuta

**Gogoratu beti egilearen izena aipatzea beste norbaitek sortutako obra erabiltzean.**

## © Aipuak

Argitaratutako obren aipuak har daitezke, jardunbide egokiak errespetatuta. Aipuak lotura nabarmena izan behar du aipua erabiltzen deneko obrarekin. Aipuak zati batera mugatu behar dira, eta irakaskuntza- edo ikerketa-helbururako behar den neurrian baimenduta daude. Obra bat aipatzean, egilea eta iturria aipatu behar dira. Ezin da aipu-muga baliatu aipu hutsez osatutako obra bat sortzeko.



### AIPUAK. LABURPENA:

1. Argitaratutako obretatik har daitezke aipuak.
2. Aipuak lotura garrantzitsua izan behar du obra propioarekin.
3. Aipuak zati batera mugatu behar dira, eta irakaskuntza-edo ikerketa-helbururako behar den neurrian egin daitezke.
4. Egilea eta iturriak aipatu behar dira.

### © Ezagutzak edo ideiak erabiltzea

Beti erabili ahal izango dira obretan ageri diren informazioa, ideiak, printzipioak eta metodoak. Egile-eskubideek ideiak adierazteko, kontatzeko edo islatzeko modua babesten dute, baina ez ideiak berak. Edonork erabil ditzake libreki, betiere beste norbaiten obra kopiatzen ez bada.

Jabetza Intelektualari buruzko Legeari jarraituz, honako hauek ez dituzte babesten jabetza intelektualeko eskubideek: lege- edo erregelamendu-xedapenak eta haien proiektuak; jurisdikzio-organoen ebazpenak eta organismo publikoen egintza, erabaki, deliberatze-saio eta irizpenak, ez eta testu horien guztien itzulpen ofizialak ere. Libreki erabil daitezke.

Halaber, egile-eskubideek indarraldia galtzen dutenean, hau da, babes-epea amaitzen denean, libreki erabil daitezke obrak.



Behar bezain originala eta independentea ez den materiala ere erabili ahal izango da, hau da, originaltasun-atalasea gainditzen ez duena. Kasuz kasu baloratzen da originaltasun-atalasea gainditzen den.

*Jabetza Intelektualari buruzko Legea, 13. eta 26. artikulua.*

## © Estekatzea

Baimenduta dago onlineko material baterako esteka bat jartzea, jatorrizko webgunera bideratzeko moduan egiten bada. Adibidez, irakasle batek zenbait materialetarako estekak gehitu ditza-ke ikas-ingurunean, edo ikasleek onlineko materiala sar dezakete beren proiektuan, betiere materialak dauden jatorrizko webgu- neetara zuzenean bideratzen badute estekek. Interneten legez kanpo eskuragarri dagoen bideo bat edo beste material bat ezin da partekatu esteka baten bidez.

## © Erabilera pribatua

Erabilera pribaturako eta hirugarrenik tartean egon gabe, jendar- teratutako obren kopiak egin daitezke egilearen baimenik gabe, baldin eta legezko bide batez eskuratu badira (erosita, liburutegi baten mailegatuta, etab.). Adibidez, erabilera pertsonalerako bada, CD edo liburu bat kopiatu daiteke, edo telebistako progra- mak eta filmak grabatu.

Erabilera pertsonalerako egindako kopiak ezin dira beste helburu baterako erabili; ezin dira enpresa- edo merkataritza-helburu- etarako erabili; ezin dira erabilera kolektiborako edo irabazizko erabilerarako erabili, eta ezin dira ordainpean banatu. Helburu didaktikoekin, lanerako edo prestaketarako kopiak egitea, adibi- dez, edo obrak Interneten gordetzea edo banatzea, ez da erabi- lera pribatua. Ezin da erabilera pribaturako programa informati- koen kopiarik egin. Dena den, ezin izango da kontratuz eragotzi

programa erabiltzeko eskubidea duenak segurtasun-kopia bat egitea, kopia beharrezko bada erabilera horretarako.

Erabilera pribaturako kopiengatik, egileei ekitatezko konpentsazio bat ordaintzen zaie, jasaten dituzten galera ekonomikoengatik. Espainian, kopia pribatuak egiteko egokiak diren ekipo, tresna eta euskarri materialak banatu edo erabiltzen dituzten merkataritza-banatzaille gisa jarduten duten fabrikatzaileek ordaindu behar dute konpentsazio hori, bai eta Espainiako lurraldetik kanpo eskuratzen dituztenek ere.

*Jabetza Intelektualari buruzko Legea, 25. eta 31. artikulua.*

## IRAKASKUNTZAN OBRAK ERABILTZEA

### © Irakaskuntzan obrak erabiltzea

Ikastetxe, institutu edo unibertsitateek dagoeneko jendarteratuta dagoen obra baten zati txikiak (bideo edo abesti bat, adibidez) kopiatu eta eskuragarri jarri ahal izango dituzte, baldin eta ekintza horiek beren hezkuntza-jardueretako argigarri izateko edo ikerketa zientifikorako bakarrik egiten badira, betiere lortu nahi den helburu ez-komertzialak justifikatzen duen neurrian. Irudi isolatuen kasuan, irudi osoa erabili ahal izango dute. Hori guztia egin ahal izango dute eskubideen titularren baimenik eskatu behar izan gabe. Hala ere, ikastetxe edo institutuek, unibertsitateko testuliburuak edo eskuliburuak kopiatu edo intranet batean eskuragarri jartzeko, eskubideen titularraren edo hura ordezkatzeko duen entitate kudeatzailearen baimena izan behar dute, zati txikiak izan arren. Unibertsitateen kasuan, kopiak egin, banatu edo intranet batera igo ahal izango dituzte, baldintza hauek betez gero:

- a) Egintza horiek hezkuntza eta ikerketa zientifikoko helburuekin gauzatzen dira, ez beste edozein helbururekin.
- b) Egintzak liburu baten kapitulu bati, aldizkari bateko artikululu bati edo antzeko argitalpen baten luzera bereko zati bati dagozkio, edo obra osoaren ehuneko 10i dagokio; ondorio horietarako, ez da kontuan hartuko kopia hori erreproduzio-egintza baten edo gehiagoren bitartez gauzatu den. Irakasleak luzera handiagoko zati bat kopiatu edo partekatu nahi badu, baimena eskatu behar du.
- c) Egintzak unibertsitate edo ikerketa-zentro publikoetako langileek gauzatzen dituzte, bertako baliabideekin eta erremin- tekin. Unibertsitateek ez dute baimenik eskatu behar ekintza horiengatik, baina ordainsaria ordaindu behar dute horregatik.

Testuliburuak, eskuliburuak edo aldizkariak kopiatu behar badituzte, CEDRO bidez lor dezakete horretarako lizentzia ikastetxe eta institutuek. Liburu baten % 10 baino gehiago edo aldizkari baten artikululu bat baino gehiago kopiatu behar badute unibertsitateek, CEDROk emandako baimen edo lizentzia izan beharko dute.

Ikasgelan film edo bideoak osoak proiektatzeko edo musika jartzeko baimena behar da. Gelan filmak edo bideoak proiektatzeko, baimena behar da; EGEDA erakunderen bidez lor daiteke. Hezkuntzaren esparruan, beste obra batzuk interpretatzeko ere (hala nola musika obrak edo antzezlanak) baimena behar da.

*Jabetza Intelektualari buruzko Legea, 32.3 eta 32.4 artikululuak.*

## © Irakaskuntza arautuko ikastetxeentzako CEDROren lizentzia

Ikastetxeentzako egile-eskubideen lizentziarekin, ikasle, irakasle eta langileek partzialki kopiatu ditzakete inprimatutako ia argitalpen mota guztiak. CEDROren lizentziak estatuko eta atzerriko materiala hartzen du barne.

Ikastetxeentzako egile-eskubideen CEDRO lizentziarekin, partzialki kopiatu, banatu eta intranet batera igo daitezke nazioko eta atzerriko argitalpenak ikasle, irakasle eta enplegatuen artean. Kopiatutako materiala ikastetxearen sare itxian (intraneta) partekatuko da, materialaren xede den irakaskuntza-taldearen eskura.

CEDROren baimenak honako egintza hauek baimentzen ditu: kopia partzialak egitea, fotokopia bidez, eskaneatuz edo beste edozein sistemaren bidez; kopiak ikasleei banatzea, posta elektronikoz bidaltzea barne; pantailan irudikatzea edo bistaratzea; ikasle, irakasle eta langile bakoitzak zatia euskarri digital batean finkatzea; teknikariek zerbitzarian biltegitratzea; ikasle, irakasle eta langileen eskura jartzea obraren zatia, intranet batean; eta zatia ikastetxearen barneko erabilerako dokumentu batean txertratzea. CEDROren lizentziak ez du barnean hartzen eraldaketa-ekintzarik, hala nola itzulpenak, egokitzapenak, etab.

Ikastetxeentzako egile-eskubideen lizentziari buruzko informazio gehiago hemen: <https://www.cedro.org/usuarios/licencias-de-derechos-de-autor/licencia-anual/ensenanza/ensenanza-secundaria>

## Ikastetxeentzako egile-eskubideen lizentzia

### KOPIAK

Ikastetxeentzako lizentziak baimena ematen du liburu baten % 10 kopiatzeko, edo artikulua oso bat kopiatzeko, aldizkariaren edo aldizkako argitalpenaren kasuan.

---

### ESKANEA

Lehen Hezkuntza eta DBH. Aldizkari edo aldizkako argitalpen bateko liburu edo artikulua baten % 10.

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa. Aldizkari edo aldizkako argitalpen bateko liburu edo artikulua baten % 10.

Unibertsitateak. Unibertsitateek hauek kopiatu eta banatu edo eskuragarri jar ditzakete eskubideen titularrei baimenik eskatu beharrik gabe: liburu baten kapitulu bat, aldizkari bateko artikulua bat edo antzeko argitalpen baten luzera bereko zati bat edo obra osoaren ehuneko hamarri dagokion luzerako zatia; ondorio horietarako, ez da kontuan hartuko kopia hori erreproduktzio-egintza baten edo gehiagoren bitartez gauzatu den. Unibertsitateek ordainsaria ordaindu behar dute erabilera horientatik. Adierazitako luzapena gainditzeko, CEDROren baimena edo lizentzia beharko da.

## **Ikastetxeentzako egile-eskubideen lizentzia**

### **OBRA DIGITALAK**

CEDROren lizentziak obra digitalak ere hartzen ditu barnean.

Kasu honetan ere, liburu elektronikoko baten % 10era edo aldizkari edo aldizkako argitalpen digital baten artikuluko baten mugatzen da erabilera.

### **CEDROren lizentziak**

**testu-obrak baino ez ditu hartzen barnean (liburuak, aldizkariak, egunkariak...).** Hauek geratzen dira estalduratik kanpo:

- musika, bideoak eta programa informatikoak
- Soinuzko edo ikus-entzuzko obren karatula edo azalak.

---

### **PARTITURAK:**

Irakaskuntza arautuko ikastetxeentzako lizentziatik kanpo daude, baina badaude musika-irakaskuntzarako lizentzia espezifikoak.

### **IKASTETXEENTZAKO EGILE-ESKUBIDEEN BAIME-NAZ KANPO:**

- Musika-partiturak
- Testu-argitalpenetan sartuta ez dauden argazkiak eta sortze-lanak. Horretarako, VEGAPen lizentzia behar da.
- Ordenagailu-eskuliburuak.
- Ikastetxeentzako CEDROren lizentziak ez du baimentzen obrak berrargitaratzea liburu, aldizkari edo beste edozein motatako argitalpen gisa, banakakoa zein aldizkakoa izan, in-primatua zein digitala izan.

## © Irakaskuntzan telebista-programak, bideoak eta filmak erabiltzea

### Telebista-programak

Hezkuntza-jarduerak ilustratzeko telebista-programa baten zati txiki bat klasean jar daiteke, eskubideen titularren baimenik gabe, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen 32.3 artikuluaaren babesean.

Programa osoa eman nahi bada, eskubideen titularraren edo jabetza intelektualeko eskubide horiek kudeatzen dituen erakundearen (EGEDA, adibidez) baimena behar da.

### Filmak

Salgai eta alokagai dauden filmak erabilera pribaturako dira. Klaseetan eta eskolaz kanpoko jardueretan filmak proiektatzeko, eskubideen titularraren baimena behar da.

Filmak hezkuntza-helburuekin erabiltzeko, EGEDAREN lizentzia lor daiteke: zinemako eta ikus-entzunezko produkzio-etxeak ordezkatzeko dituzte. Grabazio bat denda batean erosi daiteke; liburutegi batean maileguan atera; bideoak alokatzen dituen enpresa batean alokatu, edo telebistatik grabatu. EGEDAREN hezkuntza-erabilerarako lizentziak hauek hartzen dituzte: ikus-entzunezko obra eta grabazioak ikastetxeetako gela edo eremuetan emititzeko edo transmititzeko egintzak eta zinema-obra eta ikus-entzunezko gainerako obra eta grabazioak ikusgai jartzeko edo proiektatzeko egintzak. EGEDAREN lizentziari buruzko argibide gehiagorako: [https://www.egeda.es/EGEDA\\_LicenciaEducativaEGEDA.aspx#:~:text=EGEDA%20ha%20creado%2C%20junto%20con,los%20centros%20educativos%20y%20asimilados](https://www.egeda.es/EGEDA_LicenciaEducativaEGEDA.aspx#:~:text=EGEDA%20ha%20creado%2C%20junto%20con,los%20centros%20educativos%20y%20asimilados).

## Onlineko bideoak

Baimena behar da Ikasgelan onlineko bideoak erakusteko. Baimena zuzenean eska dakioke egile-eskubideen titularrari. Musika-bideoak proiektatzeko baimena SGAE, SEDAn, AGEDI eta AIE eskura daiteke. Baliteke onlineko bideo baten egileak baimena eman izana irakaskuntzan erabiltzeko bideoa, adibidez, Creative Commons lizentzia batekin.

Hala ere, kontuan izan behar da Interneten material asko dagoela beharbada legez kanpo igo dena. Irakaskuntzan, legezko materiala baino ezin da jarri ikusgai, eta egile legitimoak edo eskubideen titularrak baino ezin dute eman bideoa erakusteko baimena. Materialaren legezotasuna baloratzeko, adibidez, ikus daiteke nork igo zuen bideoa Internetera.

## © Musika irakaskuntzan erabiltzea

### Musika erreproduzitzea

Jabetza Intelektualari buruzko Legeak irakaskuntzan musika zati txiki bat erreproduzitzea besterik ez du baimentzen. Beraz, ikasgelan, musika zati txiki bat bakarrik erreproduzitu daiteke, erreproduzigailuekin zein grabazioekin. Kanta oso bat jarri behar bada, baimena behar da. Eskubideen titularrei edo eragindako eskubideak kudeatzen dituzten erakundeei eska dakieke baimena: SGAE, SEDA, AGEDI eta AIE.

Ikasleek talde ezagunen musika joko duten kontzertu bat egin nahi bada, baimena behar da. Eskubideen titularrei eskatuta lor daiteke. SGAEren edo SEDAREN bidez ere lor daiteke.

Kontuan izan behar da zerbitzu batzuk erabiltzeko baldintzek mugatu dezaketela zerbitzua erabilera pertsonalerako soilik (adibidez, Spotify Free eta Premium zerbitzuek), eta, horrenbestez, irakasleak ezin ditu erabili ikasgelan.



## Musika grabatzea

Musika grabatzeko, adibidez, norberak egindako bideo batean edo beste proiektu batean, edo webgune batean, musikaren eskubideen titularren baimena behar da. Musika grabatzeko baimena SGAE n, SEDAn, AIE n edo AGEDI n lor daiteke, salbu eta egileak sortu duen musika erabiltzeko baimena eman badu, adibidez, Creative Commons lizentzia batekin.

SGAE k eta SEDAk musika-sortzaileak edo konpositoreak, kanta-idazleak eta moldatzaileak ordezkatzen dituzte, baita musika-argitaratzaileak ere. Bestalde, AIE k artista interpretatzaileen izenean (musikariak, adibidez) ematen ditu musika erabiltzeko baimenak.

AGEDI musika-produktoreen ordezkarria da.

Jabetza Intelektualari buruzko Legea baliatuta, musika-konposizio baten zati txiki bat erabil daiteke (kopiatu, banatu, publikoki komunikatu) hezkuntza-eremuan. Zati txiki hori hezkuntza-helburuetarako baino ezin da erabili, irakaskuntza arautuko ikastetxeetan, unibertsitateetan eta ikerketako erakunde publikoetan.

Baimena behar da kanta oso bat erabiltzeko, hezkuntza-helburuetarako izanik ere, bai eta haurtzaindegi, ikastetxe eta udal ikastetxeetan antzetzutako musika-emanaldietan erabiltzeko ere (ikasturte amaierako jaietan edo Gabonetan, esaterako). Halaber, emanaldia grabatu eta gero Interneten partekatzekoa bada, eskubideen titularren baimena beharko da. Beharrezkoa da, halaber, grabatzen zaien pertsonen adostasuna eskatzea. Baimenei buruzko argibide gehiagorako: <http://www.sgae.es/es-ES/SitePages/corp-ventalicensiaP3.aspx?s=24>

## © Antzezlanak antzezteko baimena

Antzezlanak jendaurrean antzezteko, eskubideen titularren baimena behar da. Zuzenean eskubideen titularrei edo haien ordezkariari eska dakizkieke antzezlanak antzezteko baimena. SGAEk ematen ditu konpainia profesionalek antzezlanak antzezteko baimenak. Bai eta talde afizionatuek antzezteko baimenak ere. Argibide gehiagorako: <http://www.sgae.es/es-ES/SitePages/corp-ventalicenciaP3.aspx?c=5>

Norberak idatzitako obrak libreki antzeztu daitezke. Antzezlan bat egin nahi baduzu beste norbaitek idatzitako liburu bat egokituz, idazlearen baimena behar duzu.

## © Creative Commons edo beste lizentzia ireki bat

Egileak baimendu dezake bere obra Creative Commons (CC lizentzia) lizentziarekin erabil dadin. Kasu horretan, obraren ondoan agertzen den CC lizentziaren sinboloak obra nola erabil daitekeen adierazten du. Egileak baimendua izan dezake lana bere horretan erabiltzea, bai eta lan hori aldatzea, banatzea edo hari erabilera komertziala ematea ere. Obrek CC lizentzia-sinbolo bat edo gehiago izan ditzakete.

Creative Commons lizentzia duen materiala erabili aurretik, argitu ezazu egileak zer baldintzatan baimendu duen hura erabiltzea.



BY – Obra libreki erabili, banatu eta alda daiteke, baina jatorrizko egilearen izena aipatu behar da.



ND – Obra libreki erabil eta bana daiteke, baina ezin da ez eraldatu ez aldatu. Adibidez, ez litzateke sartuko irudi bat editatzea, testu bat itzultzea edo abesti bat aldatzea.



NC – Obra libreki erabili, banatu eta aldatu daiteke, baina ezin da helburu komertzialekin erabili.



SA – SA lizentzia duen obra bat erabiltzen duten obra propioek, jatorrizko obra banatu zen baldintza berberetan banatu behar da Interneten.



CC0 – Obra libreki erabili, aldatu eta banatu daiteke, baita helburu komertzialekin ere. Egileak bere obra laga du lizentzia mota bakoitzak baimentzen duena errespetatuta erabil dadin.

CC lizentziaren sinboloei eta CC lizentzia erabiltzeko moduari buruzko informazio gehiago hemen: [https://creativecommons.org/licenses/?lang=es\\_ES](https://creativecommons.org/licenses/?lang=es_ES)

## IRAKASLEAREN EGILE-ESKUBIDEAK

Sarri, irakasleak irakaskuntzarako materialak egiten ditu. Bera ere izan daiteke egile-eskubideen titularra, egiten duen materiala dela eta. Irakasleak idatzitako materialak gainerako obrak bezala babesten dira. Irakasle batek erabat independentea eta originala den material didaktikoa idazten badu, egile-eskubideak sortuko ditu. Irakasleak erabakiko du zer baldintzatan jartzen duen besteen eskura prestatu duen materiala, betiere lan egiten duen ikastetxeak izan ditzakeen eskubideei kalterik egin gabe.

Norberak sortutako material guztia kopiatu eta banatu daiteke mugarik gabe. Beste norbaitek parte hartu badu material hori sortzen, haren adostasuna ere behar da kopiatzeko eta banatzeko. Materialean beste norbaitek sortutako obrak erabili badira, halaber, birsaltzeko eskubideak izan beharko ditu.

Irakasleak obraren gaineko bere eskubide ekonomikoak laga ditzake, osorik edo partez. Adibidez, irakasle batek onar dezake bere ikastetxeko lankideek erabil dezaten irakaskuntzan berak egindako materiala, baina uko egin diezaioke materiala beste ikastetxe bateko irakasleek erabil dezaten lagatzeari. Irakasleak ez du zertan bere materiala besteen eskura jarri, ez eta materiala irekian partekatu ere (adibidez, Creative Commons lizentzia batekin).

Egileak eskubidea du bere obra erabiltzen denean bera aipa dezaten. Praktikan, horrek esan nahi du irakaslearen izena adierazi behar dela prestatu duen materiala erabiltzen denean.

## Irakasleak bere materialaren gain dituen egile-eskubideak



1. Egile-eskubideak, hasieran, beti sortzen dira egilearentzat, hau da, irakaslearentzat berarentzat.
2. Materiala norbaitekin egiten bada, lankidetzako obra bat sortzen da. Guztientzat batera sortzen dira egile-eskubideak.
3. Egile-eskubideak ikastetxearenak izan daitezke, baldin eta lan-harreman baten ondorioz sortu bazuen obra irakasleak. Kasu zehatz bakoitza kontsultatu beharko da.
4. Lan-harreman baten ondorioz sorturiko obraren ustiapen-eskubideak eskualdatzeko, kontratuan hitzartutakoari jarraituko zaio; kontratua idatziz egin beharko da.
5. Hitzarmenik egon ezean, presuntzio egingo da ustiapen-eskubideak eskusiban laga direla eta lagapen horrek behar den helmenez izango duela lan-harreman horren ondorioz egindako obra entregatu zen unean enpresaburuak ohikoa zuen jarduera egiteko. Eskubide moralak beti gordetzen ditu egileak.

## © Irakasle batek egindako materialaren gainean ikastetxeak dituen eskubideak

Lan-harreman baten ondorioz sorturiko obraren ustiapen-eskubideak enpresaburuari eskualdatzeko, lan-kontratuan edo kontratu independentean hitzartutakoari jarraituko zaio.

Hitzarmen idatzirik egon ezean, presuntzio egingo da ustiapen-eskubideak eskusiban laga direla eta lagapen horrek behar den helmena izango duela lan-harreman horren ondorioz egingako obra entregatu zen unean enpresaburuak ohikoa zuen jarduera egiteko. Enpresaburuak ezin izango du inola ere obra erabili edo eduki bestelako zentzu edo xedeetarako.

Lan-eginkizunak betetzearekin lotuta egindako obrak, maiz, enpresak bere jarduera arrunten testuinguruan erabiltzeko eskubidea duela dioen printzipioaren mende egoten dira. Hala ere, eskubide moralak egileak gordetzen ditu.

Irakasleen zereginen artean, material didaktikoak egitea egon daiteke sartuta edo ez. Kasu zehatz bakoitza aztertu beharko da. Ikastetxeak edo beste lankide batzuek irakasle batek prestatutako materiala erabili nahi badute, irakaslearekin edo ikastetxearekin adostu behar da. Gauza bera gertatzen da Interneteko material didaktikoekin.

Irakasleak obraren gaineko bere eskubide ekonomikoak laga ditzake, osorik edo partez. Irakasleak bere kabuz erabaki dezake zein baldintzatan jarriko duen besteen eskura bere materiala. Bestalde, nahi izanez gero, prestatu duen materiala ere parteka dezake, besteek erabil dezaten. Hala ere, kontuan izan behar da balitekeela ikastetxeak eskubideak eskuratu izana, eta kasu horretan hark baimenduko duela obrak erabili ala ez. Irakasleak ez du zertan materiala doan edo modu irekian banatu, adibidez, CC lizentzia batekin.

## JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK KUDEATZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK

Jabetza intelektualeko eskubideen titularrek erakundeak sortu dituzte beren eskubideak kudeatzeko, beren interesak zaintzeko eta egoera jakin batzuetan lizentziak emateko.

Egile-eskubideak kudeatzen dituzten erakundeen jarduerak egileek eta eskubideen titularrek emandako ordezkariak kontratuetan edo ahalordeetan oinarritzen dira. Horien bidez, eskubideen titularrek beren eskubideak erakundeari lagatzen dizkiote kudeatu eta babes ditzan. Era berean, eta Kultura eta Kirol Ministerioaren baimenaren ondorioz, legeak agindutako nahitaezko kudeaketa kolektiboko jarduerak egiten dituzte; adibidez, liburutegietako mailegu publikoagatik ordainsaria kudeatzea edo kopia pribatuagatik konpentsazioa kudeatzea. Jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzen dituzten erakundeek lizentziak ematen dituzte obrak erabiltzeko; erregaliak kobratzen dituzte haien erabiltzeagatik, eta eskubideen titularrei ordaintzen dizkiete, jasotako erabilera-txostenen, azterlanen edo informazioaren arabera.

Jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzen dituzten erakundeek erraztu eta sinplifikatu egiten dute lizentziak eskuratzea eta konpentsazioak ordaintzea eskubide nazionalen eta atzerri-tarren titularrei.

## **Jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzen dituzten erakunde hauek baimendu ditu Kultura eta Kirol Ministerioak Espainian:**

### **Egileen kudeaketa-erakundeak:**

- Egile eta Editoreen Elkarte Orokorra (SGAE)
- Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroa (CEDRO)
- Visual Artista Plastikoen Kudeaketa Erakundea (VEGAP)
- Ikus-entzunezkoen Egile Eskubideak (DAMA)
- Egile Eskubideen Espainiako Elkarte (SEDA)

### **Artista interpretatzaile edo exekutatzaileen jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzen dituzten erakundeak:**

- Artista interpretatzaile edo exekutatzaileak, Espainiako Kudeaketa Elkarte (AIE)
- Artista Interpretatzaileak, Kudeaketa Elkarte (AISGE)

### **Produktoreen jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzen dituzten erakundeak:**

- Eskubide Intelektualak Kudeatzeko Elkarte (AGEDI)
- Ikus-entzunezko Produktoreen Eskubideak Kudeatzeko Erakundea (EGEDA)



## EGILE-ESKUBIDEEI BURUZKO ARGIBIDE GEHIAGOTARAKO

Egile-eskubideei buruzko informazio gehiago aurki dezakezu [auladerechodeautor.org](http://auladerechodeautor.org) zerbitzuan. [auladerechodeautor.org](http://auladerechodeautor.org) egile-eskubideei buruzko onlineko gida bat da; informazioa dauka egile-eskubideei eta ikastetxeentzako lizentziei buruz, bai eta eskola-inguruetan sortzen diren egile-eskubideei buruzko galderen erantzunak ere. Egile Eskubideen Ikasgela CEDROk Espainiarako egindako egokitzapen baimendua da.

Ongi etorri Egile Eskubideen Ikasgelara [auladerechodeautor.org](http://auladerechodeautor.org)

